



A M I A

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren kostuen egiturari dagokioenean, **kostu finkoen** barnean gure langileen soldatak gailenduko dira eta, aldiz, **kostu aldakorretan** gure produktua sortzeko erabiliko diren materialak zein garraio zerbitzuak.

Kostu finkoak→ kostu finko anitz izango ditugu:

- Langileen soldatak ordaindu beharko dira
- Gizarte Segurantzak
- Aholkularitza
- Udal zergak ordaindu beharko ditugu hiruhilabetero
- Aseguru bat, edozein istripuren aurrean gure babesak bermatzeko.
- Gure tailerrak ura eta argi indarra behar duenez, hornikuntzak ere ordaindu beharko ditugu hilabetero.
- Bezeroekin harremanetan jartzeko eta gure web orri zein sare sozialak gure tailerretik kudeatu ahal izateko, wifia eta telefonoa beste gastu finko bat izango dira.

Kostu aldakorak → Gure sehaskak, hau da, sehaska gehiago edo gutxiago erostea, eskariaren arabera izango da. Bertan joango dira ere kamarak, motorrak zein baliabide elektrikoak.

Horrez gain, bidalketa gastuak aurkituko ditugu, hain zuzen ere, gure produktua bezeroengana iristeko erabiltzen diren garraio zerbitzuak.

Inbertsioak→ AMIA enpresak Ordizian izango du bere tailerra. Hau erosita egongo denez, hori izango da gure inbertsio nagusia.



A M I A

Ekonomia eskalak → Bezeroari eskainiko diogu sehaska kantitate kopuru handi bat erostegatik, berezko kostua baino prezio txikiagoa. Kostua gure kontura doa.